# Lanaur BAT
**bazkideentzako informazioa**
información para socias y socios



www.pixkanakakaskari.org/lanaur




Maiatza 2025

| Merkatuko erreferentziak | 2025 metatutako emaitza |
|---|---|
| Eurostoxx50: %10,2<br>Ibex35: %22<br>Bonoa 10urte: %3,10<br>KPI: %1,3 (Apirila) | **%1,10** |

**Zorroaren banaketa**

| | |
|---|---|
| Err. finkoa | %74,6 |
| Err. aldakorra | %19,8 |
| Inb. altern. | %5,6 |



## Errebotea

Maiatzean, errenta aldakorreko merkatu gehienek urte hasierako mailak berreskuratu dituzte, eta horrek gure likidatiboari gora eragin dio.
Martxoko eta apirileko sustoen ondoren, badirudi normaltasunak on egiten diola gure BGAEari. Normaltzat hartzen badugu behintzat munduko gizonik aberatsenak munduko gizonik boteretsuenari pederasta deitzea. Horrela gabiltza.



# Lanaur BAT: baliaezintasuna osagarria

Gizarte Segurantzak bazkide aktibo baten baliaezintasuna deklaratzen badu, **BGAEetik ere zenbait osagarri jaso ditzazke.**

**Lanaur BATetik** (Lanaur BAT eta Lanaur HIRU estaltzen dituen Baliaezintasun eta Heriotzen Fondoa bertan dago barneratuta) **Gizarte Segurantzaren pentsioa soldataren %90, %100 edo %150eraino osatzen da baliaezintasun osoa, absolutua edo baliaezintasun handia dagoenean.**

Osagarria 81 urte eta 6 hilabete bete arte ordaintzen da.

**Bazkidearen borondatezko ekarpenak bazkide ezgaitu iraunkorraren esku geratzen dira.**

| | | |
|---|---|---|
| BALIAEZINTASUN OSOA | Gizarte Segurantzako Pentsioa | BGAE osagarria %90 arte |
| BALIAEZINTASUN ABSOLUTUA | Gizarte Segurantzako Pentsioa | BGAE osagarria %100 arte |
| BALIAEZINTASUN HANDIA | Gizarte Segurantzako Pentsioa | BGAE osagarria %150 arte |

NOLA OSATZEN DA OSAGARRIA?

1. Bazkidearen izenean enpresak egindako ekarpenak
2. F.I.F. (beharrezkoa bada)

✕ Osagarri honetarako ez dira ukitzen bazkideak egindako borondatezko ekarpenak.

**Oraindik ez zara PK-ko bazkidea? hemen apuntatu zaitezke.**

info+ www.pixkanakakaskari.org/lanaur
pk@kutxabank.es / 943001787